



OSO GARRANTZITSUA!!!!

INDARREAN SARTZEAREN ONDORIOAK

Mugikorra eta posta elektronikoa eman behar dituzu:	1
Ziurtagiri digitala izan behar duzu: identifikazio- eta sinadura-sistema.....	1
Otsailaren 2an automatikoki alda daiteke zure lan poltsetako egoera	2
Otsailaren 1etik aurrera, zure lehentasunak alda ditzakezu Atarian, eskaintza telematikoak jasotzeko	2
Poltsen kudeaketa Atarian egin behar duzu	2

Mugikorra eta posta elektronikoa eman behar dituzu:

- Mugikor zenbaki bakarra
- Helbide elektroniko bakarra

Zure harremanetarako datuetan **telefono mugikorraren** zenbakirik eta **posta elektronikorik** agertzen ez bada, behin betiko baja emango zaizu lan poltsetan.

Atarian agertzen diren harremanetarako datuak berrikustea gomendatzen dizugu. Lehenago egin ez baduzu, helbide elektroniko bat eta mugikorraren zenbakia sartu beharko duzu.

Horretarako, ziurtagiri digital bat beharko duzu.
Ez badaukazu, eskatu ahalik eta lasterren.

Ziurtagiri digitala izan behar duzu: identifikazio- eta sinadura-sistema

Ziurtagiri digitalik gabe, ezin zara Atarian sartu, eta, beraz, ezin duzu eskaintzarik onartu, ezta poltsekin lotutako kudeaketarik egin ere: harremanetarako datuak sartu, lanerako prest jarri edo ez, edo zure lehentasunak aldatu.

B@kQ gomendatzen dugu

Otsailaren 2an automatikoki alda daiteke zure egoera lan poltsetan

I.- Lan poltsetan **lanerako prest** bazaude, egoera berean jarraituko duzu.

II.- Administrazio honetan **jardunean** bazaude eta **azken 12 hilabeteetan dotazio bera** betetzen ari bazara, **lanerako prest egoeran** azalduko zara, eta osa-tzen dituzun poltsa guztien lan-eskaintzak jasoko dituzu.

III.- **Aldi baterako bajan** bazaude **edo jardunean** bazaude, baina dotazio berean 12 hilabete baino gutxiago badaramazu Administrazio honetan, **hautaezin** egoeran azalduko zara.

Zuk aukera dezakezu eskaintzak jaso nahi dituzun ala ez. Zure egoera alda de-zakezu lan poltsetan, eta lanerako prest edo hautaezin jarri.

Eskaintzarik jaso nahi ez baduzu, berehala jar zaitezke **hautaezin** egoeran edo Atarian zure **lehentasunak alda ditzakezu** nahi duzun poltsetan.

Lanerako prest bazaude eta azken 30 egunetan jasotako lanpoltsa bereko hiru eskaintza onartzen ez badituzu, penalizazioa izango duzu eta **poltsa horretan 9 hilabetez hautaezin egoeran** egongo zara.

Otsailaren 1etik aurrera, zure lehentasunak alda ditzakezu Atarian, eskaintza telematikoak jasotzeko

Otsailaren 1etik aurrera, lanerako prest egon zaitezke edo ez, eta zure lehentasunak alda ditzakezu araudi berriaren arabera.

Aldaketa horiek hurrengo egunetik aurrera izango dute eragina.

Poltsen kudeaketa Atarian egin behar duzu

Erregulazio berriak lan-poltsak kudeatzen dituen pertsonarekiko **harreman-modua aldatzen du**. Hemendik aurrera, bitarteko elektronikoak erabili beharko dituzu lan-poltsekin lotutako edozein izapide egiteko.